

Bergaran, 2022ko urtarrilaren 4an

Begarako eragile agurgarria:

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuet Covid-19ak eragindako osasun pandemia betean erakutsi zenuten jarreragatik, egindako ekarpenagatik eta lanagatik.

Begarako Udalak aurrez aurre eskertu nahi zizuen egindako lana, baina ez gaude oraindik, tamalez, ohiko egoeran, eta elkarrekin lasai egoteko aukerarik ez dugu. Hortaz, eta gehiago itxaron gabe, lerro hauen bitartez eman nahi dizkizuet eskerrak Bergarako herriaren izenean: eskerrik asko.

Askotariko beharrak sortu ziren 2020ko martxotik aurrera, aurreikusten ez genituenak, baina zuen enpresa, ikastetxe, talde, eragile, komertzio eta abarrei esker, eta elkarlanean oinarrituta, bergararren beharrei ahalik eta ondoen erantzuten saiatu ginen. Administrazio eta norbanako boluntarioekin elkarlanean aritu zineten, eta zuek egindako ekarpenei esker ere ondu zen zaintza sarea; elikagaiak lortu eta banatu zitzaizkien egoera zaurgarrian zeuden pertsonei; gaitzetik babesteko maskarak, pantailak egiten eta banatzen aritu zineten; hain beharrezkoa genuen -eta dugun- aisialdirako eta kulturarako proposamenak egin zenituzten; bakoitzak ahal zuena eman zuen, eta elkar zaindu genuen.

Une hartan jarritako haziak, gainera, loratu dira, eta herritar konprometituek helarazi zizkiguten behar eta kezkei erantzun estrategikoa emateko proiektuak eta guneak sortu dira, erakunde eta herritarren arteko elkarlana oinarri dutenak: EHUNDU eraldaketa sozialerako herri proiektua eta bulegoa, edota kultura mahaia, esaterako.

Laster osasun egoera irauli eta elkarrekin egoteko aukera izango dugunaren esperantzarekin, berriz ere eskerrak eman nahi dizkizuet.

Besarkada estu bat,



Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea

Bergara, 4 de enero de 2022

Estimada entidad de Bergara:

A través de estas líneas quiero agradeceros la actitud que tuvisteis, las aportaciones y el trabajo que realizasteis en plena pandemia sanitaria generada por la Covid-19.

El Ayuntamiento de Bergara quería agradeceros personalmente y de forma presencial el trabajo realizado, pero lamentablemente todavía estamos en situación de pandemia y hoy por hoy no tenemos garantizado el poder juntarnos con total tranquilidad. Por lo tanto, y sin más dilación, a través de estas líneas quiero agradeceros vuestra labor en nombre del pueblo de Bergara: eskerrik asko.

Surgieron necesidades muy diversas a partir de marzo de 2020, que no contemplábamos, pero gracias a vuestras entidades, empresas, colegios, grupos, agentes, comercios, etc., y con la colaboración como forma de actuar, intentamos responder de la mejor manera posible a las necesidades de la ciudadanía de Bergara. Trabajasteis junto con la administración y personas voluntarias, y gracias a ese trabajo y aportaciones se formó la red de cuidados; se obtuvieron y distribuyeron alimentos a personas en situación de vulnerabilidad; os dedicasteis a fabricar y distribuir mascarillas y pantallas de protección; hicisteis propuestas para el ocio y la cultura que tanto necesitábamos -y seguimos necesitando-; cada persona o entidad aportó lo que pudo, y nos cuidamos mutuamente.

Las semillas que sembramos en aquel momento, además, han florecido y se han creado proyectos y espacios para dar respuesta estratégica a las necesidades e inquietudes que nos transmitisteis personas comprometidas como tú, que tienen como base la colaboración entre instituciones y ciudadanía, como por ejemplo el proyecto y la oficina la transformación social EHUNDU o la mesa de cultura.

Con la esperanza de que pronto se revierta esta situación sanitaria y podamos juntarnos quiero daros las gracias una vez más.

Un fuerte abrazo,



Gorka Artola Alberdi
Alcalde de Bergara